


Hilabeteko aktualitatea



2021-2022 Erika'ekintzak

7-12 urte arteko haurrei zuzendutako elikaduraren inguruko 5 ekintzen ibilbide elebidunaren bururatzen ari gara. 3. Edizioa da aurtengoa, eta haurrak eskoletako ikasle, aisialdietako edo sektore sozialeko haurrak dira. Erakunde publikoek (Herri elkargoa, Departamendua, Akitania Berria) finantzaturako programak aurten 20 haur talde kudeatu ditu, guztira 353 haur lurralde ezberdinetan (Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa). Oraindik tailer batzu eskas dira oprak aintzin. Sartzean, 30 haur taldera iristea dugu helburu !

Hilabeteko hitzorduak

- **Ekainaren 5a (Itsasuko Atharrin) :** Gereziaren pesta
Egitaraua : « Elikadura Antton maitea » Maletaren jokoa. Joko horrek Euskal herriko ekoizpenen ezagutza (Lasterketa gurmanta) eta laborantza biologikoan ari diren baserrien egituraketaren ikustea (Baserrian inkesta) ditu helburu.
Denontzat, sartzea libre
- **Ekainaren 24a (20h- 22h), Ezpeletan (Pascalen eiheran) :** Laborantzako ondoren ezagutza, Angeluko Le Mycéliste enpresako Alison-ekin.
Egitaraua : Onddo mota ezberdinen eta puzarazteko tekniken aurkezpena, Gualdia trago baten inguruan bururatuko da, giro goxoan.
Norentzat : Helduak.
Prezioa : 8€ (kideentzat) / 12 € (kide ez direnentzat). Izena eman ondoko webgunean :
<https://www.helloasso.com/associations/sarde-sardexka/evenements/soiree-decouverte-les-champignons-de-culture>

Hilabeteko errezeta

Labneh



Osagaiak : 500g iaurta – nahi dituzun belar edo espeziak – gatza eta biperra

Entselada untzi baten gainean, oihalarekin estalitako iragazki bat pausatu iaurta oihalaren gainean ixuri, eta zonbait orenez utzi ixurtzerat, hormagailuan iaurta loditua gatuli haundi batean eman, eta nahi duzun gustua eman iezaiozu espezia eta gatz/biperrari esker.

Oliba oligo xorta bat ixuri barnera, eta pita ogi baten gainean ezarri eta gozatu ! Barazki eta haragi errearekin jan daiteke. Edozoin gauza onekin jan daiteke Labneh.

Errezeta Fanny Brechard-ek pasarazi digu.

Iragarki ttipiak

Kideentzat deia : Laguntzaileak behar ditugu :

- **Uztailaren 24an Izpuran iraganen den Lur'ixtorio ekitaldiarentzat :** Harrerea, haurren xokoa, zerbitzua.
- **Sarde Sardexkaren kazeta :** Idaztea/itzulpenak.

